



tantak test xml 20230713: tantak test xml 20230713 subt

scwojs scwojs

UPV/EHU

tantak test xml 20230713

Tantak 1989-2022: berri laburra

Laurogeiko hamarkada. Euskarak, baratxe-baratxe, orduko UPV/EHUrak jauzi egin zuen garaia. Hizkuntza, aurrera samar zebilen normatibizazioaren arloan; abiapuntuko marraren gainean, aldiz, normalizazioari dagokionez. Aldeko ekimenak han eta hemen. Baita eremu akademikoan ere. Irakasle eta ikasle jendea euskal testuen eta materialen beharretan zen. Izan ere, erdaretan ziren biblioteketako apaletan pilaturiko hezkuntza-aldizkariak. Egarri hori asetzen lagunduko zuen, inondik ere, hezkuntza-gaiak euskaraz landuko ziren aldizkari bat argitaratzeak. Hartara, egitasmoa landu zuten EHuko Irakasle Eskoletako euskara-zuzendariordeak: Txema Preciado (Donostia), Patxi Salaberri (Gasteiz) eta Julian Maia (Bilbo). Lankide horietatik osatu zuten lehen erredakzio-batzordea, Txema Preciado zuzendari-koordinatzaile zela. 1989ko maiatzean argitaratu zen aldizkariaren lehen alea, EHuko Euskararako errektoreordetzak eta Argitalpen Zerbitzuak lagunduta. Laster batu zitzaizkion proiektuari EHuko Pedagogia Fakultateko irakasle batzuk: Jose F. Lukas, Frantziska Arregi, Xabier Etxague. Zientzia-batzordea eratu zen, halaber. Horrenbestez, proiektua sendotu egin zen. Lehen garai hartan beste zenbait irakasleak ere egin zuten proiektuarekin: Luis M. Naya, Begoña Bilbao, Carlos Castaño, Juan R. Oiartzabal... Luzeko joko luke hemen zuzendari eta erredakzio-batzordekide guztien aipatzeak. Bihoakie denei oraingoan errekonozimendu eta esker ona. *Izan zirelako gara...*

Honela zioen *Tantaken* hasikinaren hitzaurrean Jazinto Iturbek, orduko EHuko Euskararako errektoreordeak: "Aldizkari hau, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleek bultzatuta, gizarte honen gainean egiten diren hezkuntza azterketak, ikerketak eta lanak plazaratzeko agertu da." Izan ere, horixe izan baitzen sortzaileen xedea: hezkuntzaren inguruko jakintza eta gaiak bilduko zituen euskarri bat eskuragarri jartzea unibertsitateko irakasle eta ikasleentzat zein eskoletako eta institutuarekin irakasleentzat; esperientzia pedagogikoak partekatzeko plataforma bat eskaintzea, azken buruan.

Atzera begiratu eta, Iturbek adierazitakoak bete direlakoan gaude: hezkuntzako jendeak bereganatu, garatu eta sustatu du aldizkaria, batetik; hainbat eta hainbat ikerketa, gogoeta eta eztabaida plazaratu dira hezkuntzaren jakintza-arlo askotarikoetan, bestetik. Hori egiaztatzen, hona zenbakien laguntza: fruituei dagokienez, 65 ale, 407 artikulua eta hainbat liburu-iruzkin; eragileei dagokienez, 12 zuzendari, 38 erredakzio-batzordekide, 73 ebaluatzaile, eta ehunka artikulugile.

Bestalde, egokituz joan da aldizkaria garairik garai. Giza Zientzietako eta Humanitateetako aldizkariarentzat aldian-aldian eskatutako kalitate-irizpideak beteaz joan da. Hala, bada, kalifikazio ona lortu zuen ERCE ebaluazio-sisteman, 2006an. Harrezkerotik, honako datu-base hauetan sartu da aldizkaria: ISOC, Redined, Dialnet, Latindex, CIRC eta REBIUN. Halaber, kode irekiko *Open Journal Systems* (OJS) plataforma erabiltzen hasia da 2011z geroztik. Parekoen ebaluazioa zorrotz bete da 2012tik aurrera.



Bukatze alderako kontu pareta. Nabarmentzekoak dira J.M. Iturbaz-ek aldizkarirako urteotan egindako 69 azalak, aldizkaria mamiz ez ezik, itxuraz ere erakargarri izan dadin eginak; arte-lan sorta ederra utzi du egileak opari. Hizkuntzari dagokionez, EHUko Euskara Zerbitzuaren laguntza du aldizkariak testu-orrazketan 2017tik hona.

Hogeita hamahiru urte –33!– beteko ditu, bada, *Tantak EHUko hezkuntza aldizkariak* aurtengo maiatzean; ziklo oso bat bete dela adierazten duen zifra. Zuzendaritza eta Erredakzio Batzordea berriro direlarik, irakasle-eskolak hezkuntza-fakultate bihurtu direlarik, EHUren hasierako sostenguek –Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko errektoreordetza eta Argitalpen Zerbitzua– beren zereginetan jarraitzen dutelarik, abian da beste ziklo bat. Dena da aldakor; aldaketak aldaketa, *Tantakek* bizirik dirau askoren ahaleginari esker. Ibilaldi luze on izan dezala aurrerantzean ere!

Tantak

Erredakzio Batzordea

2022-02-14

Eranskina

Zuzendari-koordinatzaileak(kronologikoki): Jose M. Preciado Saez de Ocariz (1989 -1991); Patxi Salaberri Muñoa (1991); Jose F. Lukas Mujika (1992-1993); Luis Maria Naya Garmendia (1993-1997); Jose F. Lukas Mujika (1999-2000); Juan R. Oiarzabal Zubeldia (1997-1999), Xabier Etxague Alkalde (2000-2001); Carlos Santiago Etxeberria (2001-2013); Igor Camino Ortiz de Barron (2013-2017); Edu Zelaieta Anta (2018-2019); Miren Ibarluzea Santisteban (2019-2021); Eneko Tejada Garitano (2021-).

Erredakzio-batzordekideak (alfabetikoki): Jon Altuna Urdin (2021-); Elisa Arrieta Ilarramendi (1999-2008); Frantziska Arregi Goenaga (1989-2001); Jesus Artzamendi Saez de Ibarra (1989-1990); Ainara Atxurra Ahumada (2021-); Begoña Bilbao Bilbao (1995-1997); Igor Camino Ortiz de Barron (2002-2013); Carlos Castaño Garrido (1992-1995); Xabier Etxague Alkalde (1989-1995); Genaro Gomez Zubia (2013-); Asier Huegun Burgos (2003-2020); Nahia Idoiaga Mondragon (2021-); Kepa Larrea Mujika (2009-2018); Jose Manuel Lopez Gaseni (1998-2002); Jose F. Lukas Mujika (1989-1991) (1993-1998); Judit Martinez Abajo (2021-); Aitor Martxueta Perez (2018-); Julian Maya Larretxea (1989-1992); Maite Mendiburu Elizalde (1994-1997); Luis Maria Naya Garmendia (1992) (1997); Juan R. Oiarzabal Zubeldia (1996); Jose M. Preciado Saez de Ocariz (1992-2013); Patxi Salaberri Muñoa (1989-1993); Carlos Santiago Etxeberria (2000) (2014-2017); Mario Unamuno Plazaola (2004-2009); Arantxa Uribe-Etxeberria Flores (1998-2001); Edu Zelaieta Anta (2012-2017); Arkaitz Zubizarreta Kortadi (2021-).

